





# AUZOLAGUN

⋮

## EMAKUMEEK EZ DUTE NEGARRIK EGITEN

Testua: Miren Gabantxo  
Argazkia: Gema Arrugaeta

**M**i abuela me decía que tenía que elegir entre el trabajar o el casarme. Hizo «trabajos de hombre» en una fábrica de pescado y lloró mucho por no dedicar el tiempo suficiente a sus cinco criaturas. En la cooperativa de mujeres AUZOLAGUN han encontrado la fórmula para no llorar: jornada de cinco horas al día.



### SUKALDE ETA GARBITZE LANAK

Txandaka egiten dute lan hemen emakumeek. Batzuk goizaldeko bostetan dabilta sukaldean, eta beste batzuk gaueko hamarretan bukatzen dute garbitze-lanak enpresetako bulegoetan. Baina denek bost orduko lana betetzen dute. Hala ere inoiz, eta zerbitzuaren ezaugarriek eskatu izan badute, ohizko lan-orduak baino gehiago sartu dituzte. Euren kooperatiba da, euren emakume talde batek 1969.ean sorturikoa. Eta nahi zutelako, eta batez ere haserre zeudelako. Alokaturiko lonja txiki haretan bildu ziren hogei emakumeetatik, erdiak baino gehiagok gizon-emakume kooperatibetan ibilitakoa zen. Ibitakoa, baina momentu haretan kooperatibetatik kanpo. Orduko kooperatiben estatutuaren arabera, emakume-langileak, ezkondu ezker, lana utzi behar zuten. Enpresak halako «dotea» ematen zion emakumeari —diru-kopuru polita— eta kartilako diruak bueltan ematen zizkion. Pisua erosten laguntzeko erabiltzen zuten emaztegiak.

### EZKONDU ETA LANA GALDU

Pisua erostearekin, etxea eta familia zaintzera zuzentzen zuten emakumeak bere bizitza. Horrela izan behar zuten. Hori zen normalena 1970 inguruko urteetan.

Ezkondu ezker lanean jarraitzea txarto ikusita zegoen. Orduan emakumeak horrela zela bizitza asumitzen zuten. 1973-erako, kooperatibetan gauzak aldatu ziren. Ezkontzeak ez zuten lana uztera derrigor-tzen. Hala eta guztiz ere ordirako 20 emakumeek euren proiektuaren beharra zeukaten: etxeko lanak eginda gelditzen zitzaizkien orduetan beste lan bat egitea, lan ordaindua ahalegia. Eta zenbat ziren ordu hoiak? Lau ordu t'ardi, justu-justu kooperatibaren-estatutuaren helburu bezala idatzi zutena. Lana euren behar-izanen arabera diseinatzeko zuten. Lana diruagatik egiten zuten, senarraren soldatari

laguntzeagatik. Eta haurrak helduta lanari uzten zioten.

### 47 URTEKO EMAKUMEAK

Gaur egun kontrako fenomenoaren ematen ari da, semeek ez dutenez lanik aurkitzen, amak ez diote lanari uzten, orain urte batzuk bezala. Egund AUZOLAGUN kooperatiban 47 urte inguruko emakumeak nagusi dira.

Batek ere ez du lana utzi nahi. Are gehiago, lau ordu t'erdiko ordutegitik, bost ordu-kora pasatu dira orain dela gutxi. Eta batzuk sei orduko lana egiteko prest daude diru behar-izanean aurkitzen bait dira.

Euren soldata premiazkoa da familian orain.

### BOST ORDUKO LANA

AUZOLAGUNen sei ordu edo gehiago lanean aritzeko, kooperatibaren planteamendua aldatu beharko litzateke, estatutuak aldatu. Horretarako Kontseilu Errektoreak 300 lankideen Asanbladari galdetu beharko lioke zer egin, erabaki horrek goitik behera aldatuko lukeelako enpresaren antolamendua. Adibidez bulegoen garbiketa gaueko hamabietararte egiten ibiltzeko prest egon beharko liriteke AUZOLAGUNeko emakumeak. Baina berrogeitik gorako emakume hoiak ezkondu daude, familia zaindu behar dute, etxeaz arduratzen dira... eta ez zaie interesatzen gaueko ordutegi hori. Euren planteamendua beste era batekoa da, lan

### La jornada en AUZOLAGUN y, además, las tareas domésticas.

egiteko lehenengoak dira baina ez dute familiaren ardurara alde batera utzi nahi. Mariasun González, AUZOLAGUNeko Pertsonal Saileko buruak dioenez «ezin gara engainatu, gizarte antolatuta dagoen moduan oraindik emakumearena da etxearen ardurara, eta lan egin arren ezin du ahaztu beste zeregina. AUZOLAGUNeko emakumeek hori horrela dela dakigunez, bi lan ditugula dakigunez, bata bestearen arabera moldatu dugu, etxetik kanpoko lana 5 ordura mugatuz».

AUZOLAGUNen eguneroko saltza goizaldeko bostetan hasten da sukaldeetan, lan-talde eta turno desberdinetako emakumeak nahastatzen dira orduetan zehar, baina arratsaldeko seiretarako ez dago inolako kooperatiban. Bi motatako zerbitzuak eskaintzen dituzte: enpresen garbiketena eta bazkariak prestatzearena. Emakume gehienak garbiketak egiten dabilta, zehatz

Nire amamak beti esan dit aukeratu behar dutela: edo lan egin edo ezkondu, bietariko bat. Bera, bere garaian, arrain-fabrika batean gizonen lanak egin zituen emakumeak, negar asko egin zuten bere bost umeak zaintzeko ez zeukalako denborarik.

AUZOLAGUN emakumeen kooperatiban negarrik ez egiteko lan sistema aurkitu dute: lana bost ordu eguneko izatea.

AUZOLAGUN Arrasateko emakumeen kooperatiba da. Hirurehun bat emakume, kooperatiba-kideak denak, 60.000 pezeta inguruko soldatarekin hileroko. Euren lana enpresa eta ikastetxei bazkariak zerbitzea eta toki hoietakoko garbiketa egitea da.

Beste batzuentzat janariak prestatu eta tokiak garbitu. Emakumeek hoberen egiten duguna, edo behintzat egiten irakatsi dugutena.

AUZOLAGUNera lanean sartzeko gozaz hirurehun eskari daude. Baina ez dago lekurik. Lanean dabilta beste hirurehunak produkzio-eskariaren arabera antolatuta du lan-katea, eta kooperatibaren errentagarritasuna mantentzeko, AUZOLAGUN-ek momentuz langileen kopurua ezin du igo.



mehatz esanda, 300 lankideetatik 180 dira garbitzaileak. Besteek bazkariak prestatzen dituzte. Hortik aparte badaude langile ebentualak kooperatiba honetan. Mari Carmen Yarritu, Kontseilu Errektorearen Presidenteak dioenez «aurton 40 langile ebentual ditugu eta gehienak lankideen seme-alabak dira. Ikastetxeetan bazkariak zerbitzeko kontratatzen ditugu, ikastetxeetan ez dagoelako urte osorako lanik, ile batzuetarako baizik. Kamareruek neska eta mutil gazteak dira.

Mutilak ere baditugu gure artean polemika sortu zelako, mutilak ziren lankideen semeei ez kontratatzea azken finean diskriminazioa zela pentsatu gendulako».

## EMAKUMEEN KOOPERATIBA BAKARRA

Bestela Estatu espainol osoan dagoen emakumeen kooperatiba kasu bakar hone-

tan, hiru gizon ari dira lanean: bata gerentea da, bestea mantenimenduaz arduratzen dena, eta bestea kamioiak kargatzen dituen. Mari Carmen Yarrituk argitu duenez, «gerentea emakumea izan zen 1981.urterarte, eta gero ez zuten posturako emakume egokirik aurkitu. Mantenimendurako ez zuten horretaz zekien emakumerik aurkitu, eta kamioetan kargatzen ibiltzeko emakume batentzat fisikoki lana astunegia zela ikusi zuten».

**«El no contratar a hijos de cooperativistas sólo por ser chicos nos parecía una discriminación».**

AUZOLAGUN kooperatiba ekonomikoki momentu onean dago baina oso kompetentzia handiko alorrean dabil.

Bazkari eta garbiketetako beste enpresa askotan zerbitzu merkeagoak eskeintzeko langileen soldatak oso bajuak dira, eta Mariasun González Personal Arduradunak dioenez, «oso zaila egingo zaigu daukagun kalitatezko zerbitzua, eta gure jendeari ordaintzeko behar ditugun prezioetan mantentzea, batez ere multinazionalak sartuko direlako merkatuan... baina borroka horretan sartuko gara».

AUZOLAGUNen jende askori jaten ematen ohituta daude: behin Bilboko Erakustazokan 5.500 pertsoneri eman zizkieten jaten. Ordutik bildurra kenduta daukate, makina bat jende biltzen den tokietan bazkariak antolatzen gaur egun hoberenak dira Euskalerrian. Ia ez dute sinisten lortu dutena baina hor daude. Emakumeak izan arren.